Basque - Librea Heriotzatik Liburu Santuek - Free from Death Scriptures

Erromatarrei 6:23 Bekatuak dakarren ordaina heriotza da; Jainkoak ematen digun dohaina, berriz, betiereko bizia, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eman zaiguna.

Erromatarrei 8:2 Izan ere, Jesu Kristori esker, bizia ematen duen Espirituaren legeak askatu egin zaitu bekatuaren eta heriotzaren legetik.

2 Timoteori 1:10 Onginahi hau orain agertu da, Kristo Jesus gure Salbatzailea munduan agertzean; honek heriotza ezereztu du eta biziaren eta hilezkortasunaren argia zabaldu, berri onaren bidez.

Job 5:2 Jakizu amorruak itotzen duela zentzugabea, inbidiak hilarazten heldugabea.

Oseas 13:14 Eta Hildakoen Egoitzatik atera egingo ote ditut? Heriotzatik askatu egingo ote ditut? Herio, non dituk heure izurriak? Herio-leize, non dituk heure gaitzak? Ez dut gupidarik bihotzean».

Salmoak 9:13 Hiltzailea zigor gabe uzten ez duenak ez du ahazten errukarrien garrasia.

Job 6:26 Nire hitzak kritikatzen dituzue, haizeak daramatzan etsipenak hartuaren hitzak direlarik.

Job 33:22 Haren bizia hilobira hurbiltzen da, heriotzaren ateetatik gertu.

Ezekiel 37:12,13 Horregatik, hitz egin nire izenean eta adierazi nire, Jainko Jaun honen, mezua: Nik irekiko ditut zuen hilobiak, nik irtenaraziko zaituztet hilobitik, oi ene herri, eta Israelgo lurraldera eramango. 13 Zuen hilobiak ireki eta berorietatik irtenaraziko zaituztedanean, oi ene herri, orduan jakingo duzue ni naizela Jauna.

Mateo 27:52 hilobiak zabaldu eta hilik zeuden santu asko piztu egin ziren:

Hasiera 2:7 Orduan, Jainko Jaunak lur-hautsez gizona moldatu zuen; sudur-zuloetan bizi-arnasa putz egin zion, eta gizona bizidun bilakatu zen.

Hasiera 6:17 «Nik uholdea bidaliko dut mundura, zerupeko bizidun guztiak suntsitzeko. Munduko izaki guztiak hilko dira.

Hasiera 7:15 Bizidun guztiak binaka sartu ziren ontzian Noerekin batera,

Hasiera 7:22 Lehorrean bizi-arnasa zuen oro hil zen.

Job 12:10 Jaunaren esku dagoela bizidun ororen arnasa eta gizaki bakoitzaren espiritua?

Job 33:4 Jainkoaren espirituak egin ninduen, Ahaltsuaren arnasak biziarazten nau.

Eginak 17:25 ez dute giza eskuek zerbitzatzen ere, ez baitu ezeren

beharrik, bera baita denei bizia eta arnasa eta gainerako guztia ematen dizkiena.

Apokalipsia 13:15 Piztiaren irudiari bizi-arnasa emateko ahalmena ere eman zitzaion, irudiak hitz egin zezan eta bera adoratzen ez zutenak hil zitzan.

Joan 10:10 Lapurra ez doa artaldera ebatsi, hil eta hondatzera baizik. Ni, berriz, bizia –eta bizia ugari gainera– izan dezaten etorri naiz.

Isaias 28:15 Hau diozue: «Ituna egina dugu Herioarekin, tratua Hildakoen Egoitzarekin: ezbehar suntsigarria datorrenean, ez gaitu harrapatuko, gezurra hartu baitugu babes, maltzurkeria gordeleku».

Isaias 28:18 Herioarekin zenuten ituna hautsi egingo da, Hildakoen Egoitzarekiko tratuak ez du iraungo. Ezbehar suntsigarriak jo eta zapalduko zaituzte.

Isaias 5:24 Beraz, suak lastoa irensten eta sugarrak galtzua kiskaltzen duen bezala, halaxe ihartuko dira zuen sustraiak, hauts bihurtuko zuen loreak. Zeren eta Jaun ahalguztidunaren irakaspena baztertu egin baituzue eta Israelgo Santuaren hitza mespretxatu.

Joel 1:12 Iharturik dago mahastia, zimel pikondoa, baita granadondoa, palmondoa eta sagarrondoa ere; halaber ihartu dira basazuhaitz guztiak. Eta ihartu da gizakien poza ere!

Hosea 13:15 Efraim bere senideen artean jori ageri bada ere, hego-haizea bidaliko du Jaunak basamortuan gora: Efraimen urburua lehortuko du, iturriak agortuko. Altxorreko bitxi eder guztiak eraman egingo dizkiote.

Apokalipsia 22:1 Gero, ur biziko ibai bat erakutsi zidan aingeruak, beira bezain distiratsua, Jainkoaren eta Bildotsaren tronutik irteten zena.

Joan 4:10 Jesusek erantzun zion: –Jainkoak ematen duena ezagutuko eta edatekoa nork eskatzen dizun jakingo bazenu, zeuk eskatuko zenioke berari, eta hark ur bizia emango lizuke.

Joan 4:14 nik emango diodan uretik edango duena, ordea, ez da sekula egarri izango; zeren nik emango diodan ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko baitzaio barruan.

Esaera Zaharrak 13:14 Bizi-iturri da zuhurraren irakaspena herioaren sareetatik ihes egiteko.

Esaera Zaharrak 14:27 Bizi-iturri da Jaunarenganako begirunea, herioaren sareetatik ihes egiteko.

Ezekiel 13:17-23 «Entzun, gizaseme, eman aurpegi zeure herriko emakumeei, beren kabuz profetagintzan diharduten horiei, eta hitz egin nire izenean horien kontra. 18 Adierazi nire, Jainko Jaun honen, mezua: Zoritxarrekoak, aztikeriaz jendearen gogoa menderatzeko, jende guztiarentzako eskumuturrekoak eta tamaina guztietako txanoak josten

dituzuenok. Nire herriko jendea zeuenganatu nahi duzue zeuen probetxurako. 19 Neure herriaren aurrean profanatzen nauzue esku bete garagar eta ogi-zati batzuengatik; honela, engainatu egiten duzue sineskorra den nire herria, hiltzea merezi ez zutenak hilaraziz eta bizitzea merezi ez zutenak biziaraziz. 20 Beraz, hau diot nik, Jainko Jaunak: Hemen nauzue, jendea txoriak bezala harrapatzeko erabiltzen dituzuen lakio horien kontra. Nik desegingo ditut eskumuturreko horiek eta libre joaten utziko zuek menpean harrapaturiko jendeari. 21 Nik zarrastatuko ditut zuen txanoak eta libratuko zuen eskuetatik neure herria, eta ez dira aurrerantzean zuen harrapakin izango; orduan jakingo duzue ni naizela Jauna. 22 Zeren eta jende zintzoa atsekabetu baituzue gezurrekin, nik neuk atsekabetu nahi ez nuenean, eta gaiztoa bere asmoetan sendotu baituzue, bere jokabide gaiztotik itzul ez zedin eta, horrela, bizirik iraun ez zezan; 23 horregatik, ez duzue gehiago ikuskari hutsalik izango eta ez duzue iragarpenik egingo; zuen eskuetatik libratu egingo dut neure herria; orduan jakingo duzue ni naizela Jauna».

Jeremias 21:8 Herriari, berriz, mezu hau adierazteko agindu zion Jaunak Jeremiasi: «Egokiera ematen dizuet bizia ala heriotza aukeratzeko.

Job 34:22 ez dago ilunperik, ez itzal edo gerizperik, gaizkileen gordeleku izan daitekeenik.

Salmoak 15:10 Ez bainauzu Herio Leizera botako, zure fededuna ez duzu hilobian galtzen utziko.

Salmoak 22:4 Ibar beltz-ilunetan banabil ere, ez dut inolako gaitzen beldurrik, zu nirekin baitzaude: zure artzain-makilak lasaitzen nau.

Salmoak 29:4 Jauna, Herio Leizetik atera nauzu; hilobira jaistear nengoela, biziberritu.

Salmoak 48:16 Baina Jainkoak bizirik askatuko nau ni Herioaren eskupetik, eta berekin eramango.

Salmoak 55:14 Bizia libratu baitidazu heriotzatik, oinak erortzetik, zure aurrean ibil nadin, oi Jainko, biziaren argitan.

Salmoak 67:21 Jainko salbatzaile dugu Jainkoa, Jainko Jaunari esker libratu gara heriotzatik.

Salmoak 88:49 Nor biziko da heriotzarik ikusi gabe? Nork ihes egin Herio Leizearen atzaparretatik?

Salmoak 101:20,21 Jaunak bere santutegi gorenetik behera, zerutik lurrera begiratu du, 21 presoen intziriak entzuteko eta hiltzera kondenatuak askatzeko.

Salmoak 114:8 Bai, libratu dit bizia heriotzatik, begiak negarretik, oinak erortzetik.

Esaera Zaharrak 10:2 Bidegabeki pilaturiko altxorrek probetxurik ez, baina

zuzentasunak heriotzatik libratzen du.

Isaias 26:19 Zure hildakoak bai, berpiztuko dira, haien gorpuak altxatuko! Lurpean etzanak esnatuko dira eta pozez oihuka ekingo. Izan ere, zuk, Jauna, argia bidaltzen duzu ihintza bezala, eta lurpetik argitara ateratzen hildakoak.

Joan 5:28,29 Ez harritu esaten dizuedanaz, bai baitator ordua hildako guztiek haren ahotsa entzungo dutena, 29 eta hilobietatik aterako direna: on egin zutenak betiko bizirako piztuko dira; gaitz egin zutenak, aldiz, kondenatuak izateko.

Joan 10:28 Ez harritu esaten dizuedanaz, bai baitator ordua hildako guztiek haren ahotsa entzungo dutena, 29 eta hilobietatik aterako direna: on egin zutenak betiko bizirako piztuko dira; gaitz egin zutenak, aldiz, kondenatuak izateko.

Joan 11:43,44 Ondoren, ozenki egin zuen deiadar: «Lazaro, zatoz kanpora!» 44 Eta hildakoa hartzulotik irten zen. Esku-oinak oihal-zerrendaz loturik eta aurpegia zapi batez estalirik zituen. Jesusek esan zien: «Aska ezazue eta utzi joaten».

Joan 12:17 Jesusek Lazaro hilobitik deitu eta hildakoen artetik piztu zuenean bertan zen jendeak gertatutakoaren berri ematen zuen.

Joan 17:2 Gizon-emakume guztien gain aginpidea eman diozunez gero, berak betiko bizia eman diezaiela zuk berari emandakoei.

1 Korintoarrei 15:19-26 Kristorengan jarria dugun itxaropenak bizitza honetarako bakarrik balio badu, gizaki guztietan errukarrienak gara. 20 Baina ez, piztu da Kristo hildakoen artetik, heriotzatik piztuko direnen aitzindari. 21 Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri zen hildakoen piztuera ere. 22 Eta Adamekin duten batasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten batasunagatik guztiak itzuliko dira bizira. 23 Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen fruitu bezala; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. 24 Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. 25 Kristok errege izaten jarraitu behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. 26 Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da.

2 Korintoarrei 1:9,10 Bai, etsia nengoen heriotza-epaia gainean nuela; baina horrela, neuregan ez, baizik eta hilak pizten dituen Jainkoarengan konfiantza jartzen ikasi nuen. 10 Berak atera ninduen, eta aterako nau aurrerantzean ere, horrelako heriotza-arriskutik; berarengan dut jarria itxaropena, eta onik aterako nau hemendik aurrera ere.

2 Korintoarrei 3:6 berak egin bainau gai itun berriaren zerbitzari izateko.

Itun hori ez da legearen letra soilean oinarritzen, Espirituaren indarrean baizik, legearen letrak hil egiten baitu; Espirituak, berriz, bizia ematen.

Kolosarrei 1:21,22 Zuek ere, garai batean, Jainkoarengandik urruti zeundeten eta haren etsai zineten zeuen egintza txarrengatik. 22 Baina orain berekin adiskidetu egin zaituzte Jainkoak, Kristok bere gorputz hilkorrean jasandako heriotzari esker, beraren aurrean santu, errugabe eta akats gabe ager zaitezten.

Hebrearrei 2:9 Baina ia aingeruen pareko egina izan zen Jesus hura ohorez eta aintzaz koroatua ikusten dugu, sufritu zuen heriotzagatik; horrela, Jainkoaren onginahiaz, gu guztion onerako jasan zuen berak heriotza.

Hebrearrei 2:14,15 Familia bateko seme-alabak haragi eta odol bereko diren bezala, horrelaxe hartu zuen parte Jesusek ere gizakiaren haragi-odoletan, heriotzaren nagusi den deabrua heriotzaren bitartez indargabetzeko, 15 eta heriotzaren beldurrez beren bizitza osoan esklabo bezala bizi zirenei askatasuna emateko;

Hebrearrei 11:5 Fedeari esker eraman zuen Jainkoak Henok heriotzarik jasan gabe; desagertu egin zen, Jainkoak eramanik. Baina, eramana izan zela esan aurretik, Jainkoak nahi bezala jokatu zuela esaten du Liburu Santuak.

1 Pedro 3:18 Kristo bera ere giza bekatuengatik hil zen, eta behin betiko hil ere, errugabea errudunengatik, zuek Jainkoarengana eramateko. Gizakia zenez, hil egin zen, baina Espirituak bizi berria eman zion.

2 Pedro 1:3 Jainkoak, bere ahalmenaz, erlijio-bizitzarako behar den guztia eman digu, bere aintza eta indarraz deitu gintuen Jesus ezagutaraziz.

1 Joan 3:14 Guk badakigu heriotzatik bizira iragan garena, eta hau jakin, senideak maite ditugulako dakigu. Maite ez duena heriotzaren menpe dago.

1 Joan 5:11 Hauxe da testigantza: Jainkoak betiko bizia eman digula, eta bere Semearen bidez eman ere.

Apokalipsia 21:6 Azkenik, esan zuen: «Egina dago! Neu naiz Alfa eta Omega, hasiera eta bukaera. Egarri denari neuk emango diot doan biziaren iturburutik.

Pastor T. John Franklin
Church of Salvation, Healing, and Deliverance
COS-HAD.org